

«Guk ez dugu aldatu irizpidea»

Cristina Uriarte • Eusko Jauriaritzako Hezkuntza sailburua

Uriarteren hitzetan, betetzen dira osasun baldintzak astelehenean ikasgelara itzultzeko. Sindikatuei «erantzukizuna» eskatu die, euren aldarrikapenak bete dituztelakoan.

Irati Urdalleta Lete

COVID-19ak ikastetxeak itxi zuten, eta ikasle askorentzat pantaillak bihurtu dira ikasgela. Orain, osasun baldintzak betetzen direlakoan, itzulera prestazten ari da Cristina Uriarte Eusko Jauriaritzako Hezkuntza sailburua (Bilbo, 1961). Beste bi data ere buruan ditu: uztailean, Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa, eta iraillean, hurrengo ikasturtearen hasiera.

Hilaren 18tik 25era atzeratu da institutuak irekitzeko eguna. Eragileekin gogoeta egin aurretik atera zinen hedabideen arrera eguna iragartzera? Eta hala ez bada, norekin zenuen adostuta? Ia aho batez egin zuten denek erabaki horren aurka.

Osasuna eta segurtasuna dira gure lehentasuna, eta, hortik abiatuz, bermatu behar dugu, neurri batean, ahal dugun neurrian, hezkuntzaren eskumena. Bizi Berri planean hainbat agertoki ezarri ditugu, eta, ikusita fase horretan nola zegoen egoera eta beste jarduerak izango zituztela beren momentuak, aurreikusten zen irakaskuntza presentzialera bueltatzeko aukera zegoela maiatzaren 18an. Estatuari komunikatu genionean zein zen Eusko Jauriaritzaren plana, erabaki genuen hori partekatzea eragile guztiekin. Oso ondo azaldu diegu zein zen planifikazioa, argitu ditugu zeuzkaten zalantzak eta beraien ekarpenak ere jaso ditugu. Uste dut eragileak —eta gainera hori ikusi zen lehengo bileratik— ez zeudela bueltaren kontra. Eta beti esan dugu: osasun neurriak eta segurtasun juridikoa eskatzen zizkiguten, eta hori izan da landu duguna.

Beraz, lehenengo Espainiako Gobernuarekin adostu zenuen, eta gero hitz egin zenuen hezkuntza eragileekin?

Ez. Hau Eusko Jauriaritzaren plana da. Egia da, gero, alarma egoeraren arabera, guk adostu behar dugula nolabait estatuarekin noraino garatzen dugun gure plana. Plan hori ofizialki aurkeztu zenean, esan genuen: «Ofizialki aurkezten bada, goazen gure eragilei aurkeztera». Baina oraindik ez zegoen onartuta.

Eragileei bidalitako gutunean esan zenuen Espainiako Gobernuarekin adostuta zenuela, baina gero ez zuela segurtasun juridikoa eman. Norekin zenuen adostuta, eta zer? Denis Itxasok argi esan zuen lehen fasean ezin zirela eskolak ireki.

Hori izan da, momentu desberdinetan, agian, ordezkari batzuek esan dutena mediatikoki. Jauriaritzatik, Arantxa Tapia sailburua



Ziur nago lehenengo egunean asko-asko ez direla egongo [irekita]; inork ez du lehenengo izan nahi»

«Oraingoz, [selektibitatea] hiru egunetan mantentzen dugu. Espazio gehiago behar badugu, begiratuko ditugu»

dago izendatuta negoziatzeko. Esan zuten pasatzen ginela denarekin, baita hezkuntzarekin ere, eta gero hor behar genuen berne juridikoa. Ikusten genuen atzeratzen ari zirela, eta ez zutela ematen berne juridikorik. Ez egoteko azken momentura arte itxaroten, erabaki genuen astebete atzeratzea.

Zer zenuen zehazki adostuta? Gure plana.

Eta plan horretan jasotzen zen hilaren 18an irekitzea eskolak? Bai.

Zer ereduri ari zaio jarraitzen

Eusko Jauriaritza eskolak hain goiz irekitzea proposatzeko?

Osasun Sailak ematen dizkigun irizpideei jarraitzen diegu. Guk, gure irizpideen arabera, eten egin genuen gure irakaskuntza presentziala, eta gure osasun irizpidearen arabera planteatzen dugu —hori jasotzen da gure planifikazioan— noiz irekitzen dugun.

Iruditzen zaizu orain osasun baldintzak badaudela ikasleak ikasgeletara itzultzeko?

Bai, bai. Hau da, beti egin dugu lana Osasun Sailaren eskutik, eta haiekin kontrastatzen ditugu hartzen ditugun neurriak, erabakiak, gomendioak eta irizpideak. **Zertan oinarritzen zarete erabaki horiek hartzeko garaian?**

Uste dugu hurrengo fasean jada berme juridiko hori egongo dela. Gainera, ikastetxe guztiak izan

dute nahiko denbora ondo planifikatzeko. Osasun Sailak aukera eman digu, eta, beraz, nire ustez, oso garrantzitsua da neurriak hartzea, baina baita ikasleak bueltatzea ere. Batzuek agian ondo egin dute lan online, baina zalantza batzuk izan ditzakete, zer mailatan dauden. Ez da bakarrik ea loritu dugun gure programazioa

betetzea; gauza asko daude hor, eta guk erantzukizunez jokatu behar dugu, eta eman behar diegu aukera hori denei.

Aurreko astean, egunetik gurena aldatu dituzte irizpideak: lehenengo, ikastetxeak 18an irekiko zirela; gero, ikastetxe bakoitzak autonomia izango zuela; aurrez aurreko jarduerak maiatzaren 25era atzeratu zenuen; eta ikasleek txandaka joateko aukera izango zutela aipatu. Irizpide aldaketa horiek ikusita, nahiko sendotasun ba al dute zuen oinarriek?



Guk ez dugu aldatu irizpidea. Sentitzen dut, baina guztiz kontra nago. Hasiera batean, esan genuen gure planifikazioan eta Bizi Berri planean 18an bueltatzen ginela. Ezin bagenuen 18an bueltatu, beste arrazoi batengatik —eta ez gurea—, bueltatuko ginela beste momentu batean, eta hurrengo momentua maiatzaren 25a zen. Hor azaldu genituen irizpide orokorrak, gero azalpenak eskatu dituztenean nola egiten den, eta ikusi dutenean, esan dute: «A, bai, orduan bai; ulertzen dugu». Guk ez dugu aldatu; beti defendatu dugu ikastetxearen autonomia, eta beti esan dugu ikastetxeek beraiek ezagutzen dutela zein den beren ikasleen egoera, nola garatu duten azken hiruhileko honetan irakaskuntza, edukiak, nola planteatzen zuten ebaluazioa... Horretan guztian laguntzen aritu gara, bai berritzegunetatik, bai ikuskarizetatik. Irizpide aldaketarik ez da inongo momentuan egin. Mantentzen da, eta mantendu behar dugu; bestela, ezin ditugu ziurtasun batzuk eman, eta hori izan da gure helburua.

Beraz, hasieran, jarraibide oro-

korra eman zenuen, eta, gero, hori zehaztu zenuen?

Noski. Horrelako bilera handi batean, lehenengo lerroak izan ziren, eta hortik abiatuz joan ginen landuz bakoitzarekin zehaztasun guztiak.

Hezkuntza Ministerioak esana du eskolara itzultzea «boluntario» dela. Irekitzen duten eskolatan, ikasleentzat derrigorrezkoa izango da joatea, edo gurasoek erabaki dezakete seme-alabak ez bidaltzea?

Guk esaten dugu ikastetxe bakoitzak bere autonomiaren arabera egiten duela planifikazioa. Horrek dakar, agian, ikasle guztiak ez direla bueltatu behar, edo ez direla bueltatu behar egun berean. Berak ikusi behar du nola antolatuta, datorren astelehenean aurrera nola garatu jarduerak horiek: batzuk tutoretzak izango dira; beste batzuk errefortzuak; beste batzuk, agian, klaseak; edo aukerak. Guk ulertzen dugu, eta hori haiekin ere hitz egin dugu, malgutasunez jokatu behar dugula. Ikusten dugu familia bakoitzean egoera desberdinak egon daitezkeela; aztertu egin behar dira, eta pentsatu.



JUANAN RUIZ / FOTU

Irakasleek ikastetxera joan beharko dute, nahiz eta euren ikasleak ez itzuli ikasgeletara. Zergatik erabaki hori?

Ikastetxeetan ez da bakarrik eskolak ematea. Jarduera asko egin behar dira: tramitazioak, datoren ikasturtea prestatu, azken ebaluazioak prestatu...

Ikasle guztiak joatea da irizpidea, ala behar handiena dutenak soilik? Ikastolen Elkarteak, adibidez, bide horretatik jo du.

Uste dut bakoitzak erabakiko duela nola egin, baina, nire ustez, ezin diogu guk esan ikasle bati ezin dela joan ikastetxera berak nahi badu. Nik uste dut irekita egon behar duela denentzat. Beste gauza bat da indartzea, errefortzu gehiago jartzea benetan behar dituztenei.

Ikastetxe gehienak noiz hastea espero duzue?

Ziur gaude datorren astelehene-tik aurrera joango direla sartzen. Ziur nago lehenengo egunean asko ez direla egongo; inork ez du nahi lehena izan, baina ez da hori bakarrik. Azkenean, kontua ez da denek batera zabaltzea astelehenean; guk esaten dugu 25etik aurrera joango direla irekitzen.

Aurten, errepikatze tasa txikiagoa izango da aurreko urteetan baino, edo berdin-berdin aplikatuko dituzte irizpideak?

Irizpideak, berdin-berdin, urtero gertatzen den bezala. Ezin dut esan zein izango den errepikapen tasa. Uste dut antzekoa izango dela. Errepikatzen duten beste arrazoi batzuegatik errepikatuko dute, ez COVID-19arengatik, eta hori oso ondo aztertuko da ikuskaritzaren aldetik.

Ikasleen arteko desberdintasunak areagotu egin dira garai honetan. Zer neurri hartuko dituzue ikasle horiek berreskuratze-ko? Laguntza zerbitzuak handituko dituzue?

Ikusi dugu gai batzuk agian ondo landu direla, baina beste batzuetan beldurra daukagu; adibidez, euskararen arloan. Udarako programa bat lantzen ari gara.

Xehetasunik eman dezakezu?

Esan dezaket zuzenduta egongo dela bereziki laguntza hau behar dutenentzako: *Hamaika Esku* programaren barruan dauden ikasleentzat eta Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik DBHko bigarren mailaraino. Espero dugu hamabost eguneko

txandak egitea eta dohainik izatea.

Hilabete eta erdi falta da unibertsitatera sartzeko probarako. Zer duzue prest egun horietarako? Berma daitezke segurtasun neurriak? Arantxa Tapiak BEC eta Ficoba irekitzeko aukera aipatu du.

Beste espazio batzuk pentsatzen ari gara, behar izanez gero, unibertsitateko espazioak osatzeko, eta segurtasun neurri horiek bermatzeko. Bat, agian, BEC izan daiteke, Bizkai aldean.

Nafarroak egun bat luzatu du proba, eta hainbat institututan ere egingo du. Horrelako neurriak hartuko al du Jaurilaritzak?

Guk oraingoz hiru eguneman mantentzen dugu. Espazio gehiago behar badugu begiratuko dugu zer espazio gehiago izango diren.

Irailetik aurrera, ikastaldeak banatu egin beharko dira modu orokorrean? Isabel Zelaak, Espainiako Hezkuntza ministroak, esan du gehienez hamabost ikasle egon daitezkeela gela bakoitzean. Mahai gainean dago irakasle kopurua handitzeko aukera, ikasleak etxera ez bidali behar izateko? Hala bada, zenbateko igoera aurreikusten da?

Lantzen ari gara zer egoera desberdin izan ditzakegun irailen. Alde batetik, eremu pedagogikoa dago: curriculum, errefortzuak... Dena den, hori guztia eragileekin landu behar dugu. Hausnarketa bat egiten ari gara, ikusten zer egiten ari diren beste leku batzuetan, ideiak jasotzen. Ez da bakarrik klaseak bikoiztea; hainbat aukera daude, eta konbina ditzakegu. Gainera, ez da bakarrik hamabosteko zenbaki bat izatea. Hemen, kontua da zer distantzia mantendu behar den ikasleen artean. Distantzia horren arabera, egokituko ditugu gelak, metodologia edo egin behar den guztia.

Baduzu kezkarik online irakaskuntzan irakasleak jasaten ari diren presioarengatik?

Oso azkar egokitu behar izan dugu, bai irakasleek, bai administrazioak, bai familiek, bai ikasleek. Arlo digitala garatu behar da. Aurreikusita daukagu 20.000 ordenagailu erostea, bai familientzat, bai ikastetxentzat, eta formakuntza ere emango dugu. Uste dut irakasleek lan bikaina egiten ari direla.

Badakizue egoera honetan irakasleak nola moldatzen ari diren? Egin du Hezkuntza Sailak inolako ikerketarik?

Ikastetxeak berak ere konfinamendu honetan egin zuen planifikazio bat, ea nola jarraitu behar zuen irakasle bakoitzak bere lana; jarraipen hori egin dute ikastetxe

bakoitzean, eta ikuskaritzan jasotzen dute informazioa. Baldintza bakarra zen jarraitu behar zela irakaskuntza, nahiz eta ez-presentziala izan, eta jarraitu da.

Online irakaskuntza aukeratu da, pentsatuz eskola orduetan ikasle guztiak dutela ordenagailu bat, wifia eta lanerako toki eta giro egokia. Nola uztartzen da hori atzean geratzeko arriskua dutenei lagundu behar zaiela esaten duen mezuarekin?

Ikastetxe batek edo norbaitek ikusten badu ez duela ordenagailurik eta behar duela, mesedez abisa diezaiola sailari, eta eskainiko dizkiegu. Hori esaten ari gara denbora guztian.

Etoko jardunak ordezkatu dezake eskolako? Eskolaren funtzio sozializatzailea zertan geratzen da?

Familientzat egoera oso berezia izan da, eta egokitu zaie normalean egiten ez zituzten gauzak egitea. Horregatik esaten dugu ikastetxera itzultzea oso garrantzitsua dela; behar dugu sozializazio hori ikasleen artean eta irakaslearekin. Espero dugu denak irailen itzulitza, behar ditugun neurriekin.

Agintaldia amaitu da, eta hezkuntza legerako proposamenik ez duzu aurkeztu. Zergatik?

Hezkuntza legea tramitazioaren hasieran zegoen: irekita zegoen tramitazioa, eta idazten ari ginen testua, jasotako ekarpen guztiekin. Prozesua hor geratu da; etenda. Hau guztia amaitzen denean, eta irekitzen direnean berriz prozesu guztiak, jarraituko da. Hurrengo legealdian izango da.

Ufertzan duzue familien ezinegona ikusita erabakiak hartu eta gero atzera egin dela?

Ez da atzera egin. Osasun irizpide-tik abiatuz eten zen irakaskuntza presentziala, eta osasun irizpideetatik abiatuz hasiko da berriz irakaskuntza presentziala. Beste gauza bat da Espainiako Gobernuak zer erabaki hartzen dituen, baina gure aldetik beti aurrera izan da.

Sindikatu batzuek egoera honetan grebaren aldeko apustua egin dute, eta beste batzuek, lanuzteena. Zer balorazio egiten duzu horretaz?

Nik erantzukizuna eskatzen diet. Haien aldarrikapena zen segurtasun neurriak behar zituztela, eta jarri dira.

berria denda

TRIXERTAK	Alaiart	
	berria	2020/05/T60

ESTUA %100 kotoia 165 g/m2 S-M-L-XL
 ZABALA %100 kotoia 165 g/m2 S-M-L-XL

19,95€
BERRIALAGUNEK 17,95€

Eskuratu Alaiart-ek berriaren edukietan oinarrituta diseinaturako TRIXERTA. Eta, jasotzen duzunean, jantzi eta partekatu irudja sare sozialetan #Trixerta traola erabiliz!

berria www.trixerta.eus | (0034) 943 30 43 45 serigrafia.eus